Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

BANAKAKO EBALUAZIOA

Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2026/10

DEIALDIA, 2026an UNEAN UNEKO SENTSIBILIZAZIO JARDUKETAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZAK BANAKAKO EBALUAZIO-ARAUBIDEAN EMATEKOA

Deialdi honen helburua da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honen B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua).

Iruñeko Udalak, 2026ko aurrekontuan, 1.665.770 euroko zenbatekoa aurreikusi du hasiera batean Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, honako helburu hauekin: herrialde behartsuetako komunitateetan giza garapena laguntzea, giza jarduketak eta larrialdi-jarduketak martxan jartzea eta herritartasun globalaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea.

II. Plan Zuzentzaile honetan (2022-2025) eta etorkizuneko III. Plan Zuzentzailean (2026-2029) Udal Programaren helburua da Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea, udalerrian aktibo dauden GGKEek ordezkatzen dutena bereziki. Gainera, elkartasuna eta lankidetza gure Iruñeko gizartearen erantzukizuna direla eta ez laguntza asistentzial hutsa uler dadin lagundu nahi da, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela. Iruñeko herritarrengandik hurbil gaudenez, eta haiekin konfiantza zein zuzeneko harremana dugunez, hobeki informatuta egoteko eta eragiten diguten arazo globalez gehiago jabetzeko lagungarri diren prozesuak babestu nahi ditugu. Gure ustez, mundua aldatzeko behetik hasi behar da, zehatzenetik. Horregatik sustatzen dugu gure hirian sentsibilizazioa inplikazio aktibo bihurtuko duen garapenerako hezkuntza, gure bizilagunak ahalduduz desberdintasunak gainditzeko eta, modu parte-hartzailean, komunitate behartsuenekin engaiatutako herritar globalak eraikitzeko.

Azkenik, balioa eman nahi diegu garapenerako lankidetzari eta Iruñean hegoaldeko begiradari tresna eraldatzaile gisa aldaketa eta erronka globalen testuinguruan, eta, horretarako, tokiko esparruaren abantaila konparatiboetan sakondu nahi dugu.

Iruñeko Udalaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da herritartasun globalaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea, herrialdeen eta komunitate behartsuen egoeraren eta egoera hori gainditzeko egiten dituzten ahaleginen berri emateko. Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetza) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat, unean uneko sentsibilizazio jarduketak egiteko dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdirako. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarrizko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi

	ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da beste hainbatekin batera finantzatzea GGKE interesdunek eta Herritarren Erakundeen Udal Erroldan izena emanda dauden irabazi-asmorik gabeko entitateek egin beharreko Unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak (USJ), Nazioarteko Lankidetzaren arloan Iruñeko Udala egiten ari den lanaren 30. urteurrenaren karietara.

2. Deialdiaren helburua:

Sentsibilizazio-jarduketa eta/edo aparteko prestakuntzako jarduketa zehatz eta puntualak sustatzea; jarduketa horiek Nazioarteko Lankidetzako lanaren 30. urteurrenarekin loturik egonen dira.

Proposatutako jarduketak herritar orori eta/edo kolektibo zehatzei zuzenduta egon daitezke, eta loturik egonen dira hegoaldeko herrialdeen urritasun-egoerarekin, egoera horietara bultzatu dituzten zergatiekin eta komunitate horiek arazook gainditzeko egiten ari diren ahaleginekin, halako moduz non Iruñeko herritarren artean engaiamendu solidarioko jarrerak bultzatuko baitira, harreman bidezkoagoen eta berdintzaileagoen alde. Proposatutako jarduketak ezin dira erakunde eskatzailearen ohiko zereginaren parte izan.

3. Diruz lagungarriak diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

a) Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzen arabera egokiak izatea.

b) Behar bezain zabal garatuta aurkeztea proposatutako jarduketaren eta hura gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa. Proposatzen diren jarduketa puntualek finantzatu beharreko jarduera bat edo gehiago jasotzen ahal dute.

c) 2026an egitea (hasi nahiz bukatu). Gehienez ere hiru hilabeteko epean abiarazi beharko dira dirulaguntza ordaintzen denetik hasita, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- o izaera irekia, publikoa eta doakoa izan behar dute.
- o Oro har, Iruñeko udal-mugartean gauzatuko dira.
- o Lehentasunez Udalaren lokaletan eginen dira.
  (ikus https://participa.pamplona.es/eu/udalaren-lokalen-eta-guneen-erabilera/)
- o Jasangarritasun arloko neurriak modu proportzionalean eta egokian aplikatzea hainbat alderditan, hala nola hondakinen kudeaketan, garbiketan, horniduretan edo muntatzean eta desmuntatzean.

Iruñeko Udalak zerbitzu bat eskaintzen du ekitaldiak antolatzen dituzten entitateei araudi berria betetzeko aholkuak eta laguntza emateko https://www.pamplona.es/eu/eventos-sostenibles

d) Entitate eskatzaileak antzeko sentsibilizazio-jarduera eta/edo -proiektuak gauzatzeko duen gaitasuna frogatzea, eta horiek gauzatzen esperientzia izatea.

e) Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du deialdi honetan. Hala ere, beste entitate batzuen laguntza eman eta jasotzen ahalko da beste jarduketa batzuk gauzatzerakoan.

Deialdi honen xedetik kanpo geratuko dira:

1. Garapenaren aldeko lankidetzako edo Larrialdi Humanitarioko beste proiektu batzuetarako dirua biltzea

helburu duten sentsibilizazio-jarduketak, edo entitatea bera finantzatzekoak.
2. Entitatearen lanaren eta/edo ibilbide orokorraren ezagutza sustatzeko zuzenduta dauden edo soilik horretarako komunikazio-izaera argia duten jarduketak.
3. Entitate eskatzailearen barne-funtzionamenduak sortutako jarduketak: barne prestakuntzako jarduerak, aldian aldiko buletinen edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, bilerak edo barne topaketak eta abar.
4. Merkataritza-ekimenen (catering-ak, jendeari saltzeko dendak, etab.) ohiko funtzionamenduarekin zuzenean eta esklusiboki lotutako jarduketak.
5. Genero, adina, etnia, ideologia, erlijio edo egoera sozialeko zioak direla-eta parte-hartzea eragozten duten jarduketak.
6. Ikastetxeetan eskola-ordutegian egindako jarduketak.
7. Ezin izanen da dirulaguntza bat baino gehiago eman jarduketa berari, nahiz eta proposamena entitate batek baino gehiagok aurkeztu.

Jarduketa diruz lagungarriak egiteko epea: 2026an egitea (hasi nahiz bukatu). Gehienez ere hiru hilabeteko epean abiarazi beharko dira dirulaguntza ordaintzen denetik hasita.

Hasiera-data jakinaraztea: Entitate eskatzaileak, dirulaguntza ordaintzen denetik hilabeteko epean, Iruñeko Udalari jakinarazi beharko dio jarduketaren benetako hasiera-data.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:
☒ BAI ☐ EZ
Dirulaguntzak eskabide-hurrenkeraren arabera emanen dira, oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenen artean. Dirulaguntzak bakarrik emanen dira baldin eta horretarako kreditu eskuragarririk badago indarra duen udal-aurrekontuan.

Deialdi honetako eskaeren balorazioan gehienez 100 puntu emanen dira, honako irizpide hauek erabilita:

1. blokea. Egokitzapen-maila deialdiaren lehentasunekiko (5 puntu bitarte): Baloratuko da ekimenak hegoaldeko herrialdeen urritasun-egoerak ezagutaraztea, bai eta horien kausak nabarmentzea eta komunitateek beraiek egoera horiek gainditzeko egiten dituzten ahaleginak balioestea. Halaber, baloratuko da Iruñeko herritarren artean konpromiso solidarioko jarrerak sustatzea, kontzientzia global, aktibo eta eraldatzaile baten alde eginez.

2. blokea. Entitatearen eta jarduketari ekin behar diotenen gaitasuna zein horien harremanen kalitatea (11 puntu bitarte).

2.1. GGKE eskatzaileak garapenerako hezkuntzan eta nazioarteko lankidetzan duen esperientzia (2 puntu bitarte): Baloratuko da entitateak garapenerako sentsibilizazioan eta/edo hezkuntzan, lankidetzan eta/edo laguntza humanitarioan eta larrialdietan duen esperientzia, finantzaketa-iturria edozein dela ere.

2.2. Beste gizarte entitate batzuen parte-hartzea eta/edo lankidetza (4 puntu bitarte): Baloratuko da nazioarteko lankidetzaren sektorera mugatuta ez dauden beste kolektibo edo entitate batzuek parte hartzea proposatutako jardueran, eta haien erantzukizunei eta rolei buruzko informazioa ematea.

2.3. Iruñean bizi diren hegoalde globaleko pertsonen elkarte edo kolektiboen parte-hartzea eta/edo lankidetza (5 puntu bitarte): Baloratuko da jarduerak Iruñeko/Nafarroako etorkinen elkarteen parte-hartzea/lankidetza izatea.

3. blokea. Jardueraren hartzaileak (3 puntu bitarte): Baloratuko da jardueraren hartzaileak behar bezala ezaugarritzea, sexuaren eta/edo adin-taldearen arabera bereizten saiatuz, eta jardueran parte hartzean zer onura lortzen ahal duten azalduz.

4. blokea. Teknikaren eta aurrekontuaren kalitatea (54 puntu bitarte):

4.1. Ezarritako helburuaren eta aurreikusitako emaitzaren deskribapena (9 puntu bitarte): Baloratuko da argi eta garbi zehaztea proposatutako jardueratik espero den helburua, eta aurkeztea azken horretarako adierazleak edo balorazio-parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak), bai eta egiaztapen-iturriak ere. Gainera, jarduera parte-hartzailea izatea baloratuko da, bai eta parte-hartzaileek jarduera horren ondoren egiten ahal diren ekintzak proposatzea ere.

4.2. Jardueren deskribapena (23 puntu bitarte). Baloratuko da argi eta garbi definitzea jarduera, behin-behinekotasuna, beharrezko baliabide teknikoak eta giza baliabideak, bai eta metodologia aktiboak proposatzea ere jarduera gauzatzeko garaian. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen irisgarritasun-maila ere kontuan hartuko da. Eta, azkenik, baloratuko da jardueraren edukiarekin zerikusia duten materialak argitaratzea eta zabaltzea, bai eta material horiek banatzeko plana ere.

4.3. Aurrekontua (22 puntu bitarte) Baloratuko da behar duten partida guztien kalkulua azaltzea, planteatutako jarduerei dagokienez koherentea eta justifikatua izan dadin. Horretarako, Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren erabilera zehaztuko da, zenbait emaileren finantzaketa jasoz gero. Era berean, baloratuko da materialen eta zerbitzuen hornitzaileak nafarrak eta/edo bidezko merkataritzakoak edota ekonomia solidariokoak izatea. Azkenik, baloratuko da Nafarroako lankidetza deszentralizatuko beste erakunde batzuek jarduera babestea.

5. blokea. Zeharkako ardatzak (20 puntu bitarte)

5.1. Giza eskubideak (8 puntu bitarte): Baloratuko da jarduerak erreferentzia egitea Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman desberdinei eta harreman horiek eragiten dituzten arrazoiei, bai eta Hegoan giza eskubideak urratzen diren egoera zehatzei ere, haiekin lotutako aldarrikapenei ahotsa emanez. Era berean, baloratuko da Iparraldeko bizimoduek Hegoaldean bizi direnengan nola eragiten duten azaltzea eta aztertzea.

5.2. Genero-ikuspegia (6 puntu bitarte): Baloratuko dira emakumeek Hegoaldeko gizarteetan duten agerpena, presentzia, lana eta proposamenak, bai eta Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeek bizi dituzten egoeren arteko ezberdintasunei/kidetasunei buruzko hausnarketak sartzea ere. Genero-ikuspegia hizkuntzan eta komunikazioetan aplikatzea ere baloratuko da.

5.3. Ingurumen-inpaktuak (6 puntu bitarte): Planteatutako jarduerarekin bat etorriz, baloratuko da erreferentzia argi eta esplizitua egitea ingurumen-inpaktuari eta hura lantzeko moduei.

6. blokea. Ebaluazioa (3 puntu bitarte): Baloratuko da planteatutako jarduera nola ebaluatuko den argi eta zehatz azaltzea, bai eta ebaluazioa modu parte-hartzailean eginen den ere.

7. blokea. Gauzatzen ari den nazioarteko lankidetza proiektu batekiko lotura (4 puntu bitarte): Baloratuko da proposatutako jarduerak nazioarteko lankidetza proiektuekin zerikusia izatea, bereziki Nafarroako entitateek finantzatzen badituzte.

Unean uneko jarduketek, dirulaguntza jasotzeko, gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 10.000 €

BANAKAKO EBALUAZIOA

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/23930/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienez ere 2.000 € emanen dira.
Dirulaguntza jasotzeko, jarduketa puntualak gutxienez 60 puntu lortu beharko ditu. Puntuazio hori gaindituta, dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 100ekoa izanen da, betiere deialdiaren oinarrietan gehienez baimendutakoa mugatzat hartuta eta kreditu eskuragarririk badago.
Puntuazioa zehazteko, deialdi honetako B.4) apartatuko oharrak aintzat hartuko dira.

4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ
Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	10.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa ( )	€
1. urtekoa ( )	€	3. urtekoa ( )	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:
Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoa izatea, irabazi-asmorik gabekoak izatea eta lehen edo bigarren mailako jarduketa-eremua garapenaren aldeko lankidetza izatea.

2) Presentzia Iruñean:
Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra,
edo
Egiaztatzea azken urtean Iruñean gutxienez jarduera bat egin izana entitate eskatzailearen gidaritzapean. Jarduerak oinarritu behar dira Hegoaldeko herrialdeen egoeraren inguruko elkartasunaren eta sentsibilizazioaren sustapenean.

3) Entitatearen helburu sozialak beteko direla bermatuko duen egitura bat izatea.

4) Deialdi honetan edo Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren besteren batean aurretik dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki Deialditik kanpo geratuko dira.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:
☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:
☒ BAI ☐ EZ

a) Iruñeko Udalari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro. Era berean, jakinaraztea jardueta garatzen den bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.

b) Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: a) gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; b) kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; c) kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta d) urteko kontuak. Informazio hori guztia Iruñeko Udalaren esku egon behar da, eta hark eskatzen ahal du.

c) Jarduera Iruñeko Udalaren aurrean agerian uztea, oinarri hauetan jasotako txosten tekniko eta finantzarioen bidez.

e) Jarduerak adingabeekin lan egitea badakar, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoan eskatutako baldintzak betetzea, adingabeekin ohiko kontaktua duten lanbide, ogibide eta jardueretan aritzeari dagokionez.

f) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea jardueren garapena hedatzeko, iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera, lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate- oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluarekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:
☐ BAI ☒ EZ

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak non aurkeztu:
Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkezten ahalko du. Telematikoki aurkeztu behar dira Iruñeko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, honako web-helbide honetan:
https://sedeelectronica.pamplona.es/

Aurkezpen telematikoak barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako eranskinak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 26an amaituko da.

Deialdi hau argitaratu baino lehenago egindako jardueren kasuan (urtarrilaren 1etik oinarri hauen argitalpenera bitarte), eskaerak aurkezteko epea, gehienez ere, hilabetekoa izanen da, behin oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:
Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluak aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokie, nork eman

zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:
Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.
1. Entitatearen estatutuak.
2. Entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzeko agiriak.
3. Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.
4. Entitate eskatzailearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo antzekoa; ordezkari-izaeraren eta une horretan aitorturik duen ahalordearen akreditazioa).

Agiri horiek GNLUPi aurretik entregatu bazaizkio, ez da beharrezkoa aurkeztea, betiere aldaketarik egon ez bada eta bost urte baino gehiago igaro ez badira zein prozedimendutarako aurkeztu eta hori amaitu zenetik. Kasu horretan VI. eranskina bete beharko da.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Honako agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzekoak:

☒ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzekoa. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.
VIII.I. eranskineko ereduaren arabera. Inprimakia unean uneko sentsibilizazio jarduketetarako.

g) Jarduketa garatzeko aurreikusitako gastu eta sarreren aurrekontu banakatua, VIII.II. eranskinaren arabera. (Aurrekontua Excelen).

h) Garatu beharreko jarduera behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen bada, dokumentazio grafikoa, teknikoa, finantzarioa eta beste mota batzuetakoa. Eranskinak tituluekin aurkeztuko dira.

i) Transferentzia bidez Ordaintzeko Eskabidea. Aurkeztu beharko da eskatzailearen banku-kontuari dagokionez aldaketarik izan bada. Eredua erantsi da (VII. eranskina).

j) Sexu-delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria adin txikikoekin aurreikusitako jardueretan ohiko harremana izanen duten kontratatutako langile, boluntario, praktiketako langile edo edozein pertsonarendako. Horrez gain, V. eranskina aurkeztuko da.

k) Entitatearen ahalmena, zeinak honako hauek biltzen baititu: entitate mailako helburuak eta lan-ildo instituzionalak, egitura, zein lurraldetan jarduten duen eta esperientzia (IV. eranskina).

Jarraian honako hau adierazten da: "Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak". Garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuan jasotako indarreko legeriaren arabera, eta, zehazki, haren 43.3 artikuluaren arabera, ez da beharrezkoa izanen jatorrizko dokumentazioa aurkeztea: eskaerarekin batera doan dokumentazio osagarriaren kopia soila aurkezten ahalko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.5 artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Instrukzio organoak aurre-ebaluazio bat eginen du, eta hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non eskura daukan informazioaren arabera eskatzaileek bete beharreko betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatuko baita.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: hiru hilabete, eskaera erregistroan sartzen den egunetik aurrera.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.
Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu)

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikuluak ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

a.1) Lokalen alokairua jarduerak egiteko: entitatearen/tokiko kidearen ohiko egoitzaz besteko guneak alokatzea, jarduerak egiteko beharrezkoak. Espazioen erabilera justifikatu beharko da, publikoak ez badira.

a.2) Ekipoak, materialak eta hornidurak

a.2.1) Materialak eta hornidurak: Jarduerak egiteko beharrezkoak diren hainbat euskarritako materialak (bibliografikoak, ikus-entzunezkoa) eta material suntsikorra erostea.

a.2.2.) Jarduerak egiteko eta hedatzeko beharrezkoak diren erakusketa, material grafiko, ikus-entzunezko edo idatzizkoen diseinua, maketazioa eta inprimaketa, bai eta itzulpen-gastuak ere.

Garraioa eta materialen asegurua (erakusketarik edo antzekorik eginez gero).

a.2.3.) Zabalkundea: Epigrafe honetan sartuko dira jarduerak hedabideen bitartez zabaltzeari dagozkion gastuak (sare sozialak, prentsa, irratia eta telebista).

a.3) Bidaiak, egonaldiak eta dietak: Jasotako dirulaguntzari egozten ahal zaio hizlari eta/edo parte-hartzaileen mugikortasunari dagozkion bidaia, ostatu hartze eta dieten ondoriozko gastuen % 80, gehienez ere. Muga hori gainditzen ahalko da nazioarteko bidaiak direnean.

a.4) Zerbitzu teknikoak eta profesionalak: Jarduerak egiten eta lan espezifikoak egiten zuzenean inplikatutako zerbitzu teknikoak edo profesionalak (emandako dirulaguntzaren % 20, gehienez).

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko:
o Jarduketak berekin ekar ditzakeen administrazio- eta kudeaketa-gastuak. Gastu horiek entitate onuradunak finantzatuko ditu bere ekarpenen edo beste bide batzuetatik jasotako ekarpenen bidez.
o Entitate eskatzailearen barne funtzionamenduak sortutako jarduerak (barne prestakuntzako jarduerak, aldian aldiko buletinen edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar), baldin eta jarduketa egiteari ezin bazaizkio zuzenean egotzi.
o Garapenaren aldeko edo larrialdi humanitarioko proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio jarduerak.
o Komunikazioko gastuak, baldin eta entitatearen lanaren eta/edo ibilbide orokorraren ezagutza sustatzeko zuzendutako komunikazio-izaera argia eta esklusiboa badute.
o Iparraldeko herrialdeetan egoitza duten pertsonek Hegoaldeko herrialdeetara egindako bidaiek eragindako gastuak.
o Merkataritza-ekimenen (catering-ak, jendeari saltzeko dendak, etab.) ohiko funtzionamenduarekin loturiko gastuak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: 2026ko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta 2026ko abenduaren 31n amaituko.

Gastuak ordaindu beharko dira justifikazio-aldia amaitu baino lehen.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:
☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 50

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:
☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren salbuespen gisa, deialdi honetan dirulaguntza jasotzea bateraezina izanen da Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko nazioarteko Lankidetzaren esparruan ematen dituen beste dirulaguntzekin, urte berean eta jarduera berarako baldin bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
- ☒ Ordainketa aurreratua: Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 100 ordainduko da, ordainketa bakarra eta aurreratua eginda.
- ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, aldez aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:
☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

BANAKAKO EBALUAZIOA

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa telematikoki aurkeztuko da, eta honako agiri hauek jasoko ditu.

1. Dirulaguntza jasotzen duten GGKEek jarduketaren garapenaren txosten deskriptibo eta finantzario bakarra aurkeztu beharko dute. Txosten hori Justifikazio Txostenaren Inprimakiarekin bat egin behar da, eta honako agiri hauek jasoko ditu:

1.1. "Txosten teknikoa", (IX.1. eranskina): bertan deskribatuko dira egindako jarduerak, erdietsi nahi ziren helburuak eta lortutako emaitzak, bai eta jarduketaren garapenean egindako aldaketak ere.

Horrekin batera, Udalaren dirulaguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia ere aurkeztuko da (argitalpenak, kartelak, liburuxkak, ikus-entzunezkoak, etab.), bai eta diruz lagundutako jarduketa gauzatu dela egiaztatzen duen edozein agiri idatzizko zein grafiko ere (argazkiak, ebaluazioak, prentsa-dosierrak, etab.).

Aurkeztu nahi den beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako jarduketaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera. Bertan jarduketaren kontura egindako dokumentazioaren kopia txertatu beharko da: dibulgazio-materiala, txostenak, ikerlanak, ikus-entzunezko materiala, etab.

1.2. "Txosten ekonomikoa" (IX.2. eranskina), jasotako dirulaguntzari dagokionez. Bertan honako hauek sartu beharko dira:

a) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, onartutako aurrekontu osoarena, hau da, hala jasotako dirulaguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez.

b) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, nominak, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute. Modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga, jaulkitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaintzeko era. Inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutxako tiketak.

PFEZren atxikipena eta ordainketa justifikatu beharko da, autonomoen kasuan.

c) Faktura edo beste ordainketa-agiri bakoitza egindako ordainketa egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).

d) Diruz lagundutako gastuak eta horien ordainagiriak aurkeztuko dira faktura edo bestelako agiri elektronikoen bidez, ahal bada. Hori ezinezkoa bada, kopia eskaneatu bidez aurkeztuko dira egiaztagiriak.

e) Hartzailearen ziurtagiri bat ere aurkeztuko da, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta xede bererako jasotako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.

1.3. Telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, IX.III. eranskinarekin bat.

2. Organo kudeatzaileak, aurkeztutako agiriak ikusita komenigarritzat jotzen badu, dokumentuak prozeduran duen garrantziak hala eskatzen badu, edo kopiaren kalitateak eragindako zalantzak badaude, erkaketa bat eskatzen ahalko du. Horretarako, entitate onuradunari eskatzen ahalko dio jatorrizkoak aurkez diezazkiola, 10 egun balioduneko epean eta aurrez aurre, egiaztatzeko kopia soilean aurkeztutako agirien benetakotasuna; organo kudeatzaileak administrazio-espedientean jaso beharko du egiaztapena egin duela eta aurkeztutako kopiak bat datozela jatorrizkoekin.

3. Halaber, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deitzen ahalko die finantzatutako entitateei, horiek jarduketaren garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) klausulan aurreikusitako onuradunen betebeharrik galarazi gabe.

4. Diruz lagundutako jarduketei edozein unetan egiten ahalko zaie kontrola eta jarraipena, eta haiek gauzatzeko ardura duten entitate arduradunek Iruñeko Udalak eskatzen dien edozein informazio edo dokumentazio eman beharko dute.

5. Txosten bat eman beharko da teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

Desadostasunen bat atzemanez gero, eta desadostasunak badirau hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero, dirulaguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko galdatuko da, hala badagokio, dagozkion interesak gehituta eta/edo legozkiokeen zehapenak ezarrita.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:
Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ
☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):
Zehaztu beharrekoak:
Modulua osatuko duten unitateak:
Moduluaren unitate-kostua:
Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: justifikazio-epea hilabete batekoa izanen da, proiektua amaitu eta hortik aitzina. Deialdi hau argitaratu aurretik amaitutako jarduketen kasuan, dirulaguntza jaso eta hilabetera aurkeztu beharko da justifikazioa, salbuespenezko inguruabarrak direla-eta erakunde

eskatzaileak justifikatutako luzapena eskatzen duenean izan ezik. Luzapen hori GNLUPek eman beharko du.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Edozein zio dela medio diruz lagundutako gastuak egiten ez badira, edo horietan aldaketak egiten badira Iruñeko Udalak bere organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe, egin gabeko gastutzat hartuko dira.
2. Proiektu berarentzat beste zenbait dirulaguntza jasotzeagatik entitate onuradunak jasotzen duen zenbatekoa bada diruz lagundutako jardueraren kostuena baino handiagoa.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

Eskabide telematikoa egin aurretik GNLUPekin harremanetan jartzea gomendatzen da, funts **erabilgarririk** dagoen jakiteko.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA.** ESKABIDE-EREDUA.

☒ **II. ERANSKINA** ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKOA.

☒ **III. ERANSKINA** ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. ERANSKINA. AHALMEN INSTITUZIONALA

V. ERANSKINA. ADIN TXIKIKOEKIN OHIKO HARREMANA DUTEN PERTSONEI BURUZKO BETEBEHARREN ADIERAZPENA

VI. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO UDAL PROGRAMARI DOKUMENTAZIOA AURRETIK ENTREGATU IZANARI BURUZKOA

VII. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA

VIII. ERANSKINA. USJ - INPRIMAKIA: VIII.I. ERANSKINA INPRIMAKIA ETA VIII.II. ERANSKINA AURREKONTUA.

IX. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA (USJ): IX.I. ERANSKINA TXOSTEN TEKNIKOA, IX.II. ERANSKINAK FINANTZA-TXOSTENA eta IX.III. ERANSKINA AURKEZTUTAKO AGIRIEN EGIAZKOTASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

X. ERANSKINA. KORRELAZIOA GHJen eta CRSen ARTEAN